

# Aretxagazeta

ETA GAINERA...

## Ze barri?

ASTEKO GAIA


**Aurora borealen  
gaineko erakusketa /08**

ELKARRIZKETA

**Mexikoko kartzeletako  
egoera mintzagai /09**

LEINTZ GATZAGA

**Azken ohiko osoko  
bilkurako erabakiak /10**



## OSTRUKAK GERTU-GERTU

**HIRU OSTRUKA EKARRI  
DITU ARETXABALETAR BATEK**

**SAIAK URKULUN: ZAPATUAN JAITSI ZIREN/4 • KIROLAK: MURRUKIXOREN MENDI ASTEA/6**

**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 30**  
ITURRALDE. Mitarte 18... 943 79 27 22

**DOMEKA, 31**  
ITURRALDE. Mitarte 18... 943 79 27 22

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkartea	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola	943 71 21 18
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

**UDALTZAINGOA**

Arrasate	943 79 14 39
----------	--------------

**LARRIALDIK**

SOS Delak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:00, 12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Lanegunetan: 19:30

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Zapatuetan: 18:30  
Lanegunetan: 08:00

**BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO**  
Domeketan: 12:30

**MENDIOLA**  
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

**GELLAO**  
Domeketan: 11:30

**OHARRAK**

**KURTZEBARRI ESKOLAN BIGARREN HITZALDIA**

Adimen emozionalaren inguruko bigarren hitzaldia, azaroaren 11n izango da, 18:30ean, Kurtzebarri eskolako liburutegian. Ainhoa Manzano eta Juan Luis Martin adituek egingo dute berba.

**1949. URTEAN JAIO TAKOAK**

1949an jaio tako kintoek afaria egingo dute bihar, zapatua. Taberna Berri jatetxean izango da afaria.

**ATARIETAKO OHARREN GAINEKO LIBURUXKA**

Udalak atariz atari banatu ditu Mankomunitateak atera dituen liburuxkak. Atarietan jarri ohi diren oharrak euskaraz zelan jarri azaltzen da liburuxkan. Udaleko Euskara Sailean ere eskura izango dira liburuxkak.

**MANIFESTAZIO RAKO AUTOBUSA**

Bihar, zapatua, AHTren aurkako manifestazioa egingo da Donostian, eta autobusa 15:45ean aterako da Azbetik. Manifestazioa 18:00etan hasiko da.

**LORAMENDIREN AGENDA**

**BARRETERAPIA IKASTAROA**  
Azaroaren 12 eta 19an izango dira Loramendik antolatutako barreterapia ikastaroak, eta izenematea lehenbailehen egin behar da elkartearen bertan.


**ZANKO IKASTAROA**  
Gaur, egubakoitza, bukatuko da zanko ikastaroa. Guztira 12 lagunek esku hartu dute ikastaroan.

**DIBORTZIOAREN INGURUAN**  
Datorren egunean ez da hitzaldirik izango Loramendik antolatuta, baina hamabost egun barru dibortzioaz arituko dira. Abokatu bi etorriko dira hitzaldia ematera.

**ORAINDELA 11 URTE ARETXABALETAN**

1993ko azaroaren 3an Kepa Urra epaitu zuten

Kepa Urraren aurkako lehenengo epaiketa egin zen Madrilgo Entzutegi Nazionalan. Herriitik hainbat lagun joan ziren autobusez Madrilera. Kepak, atxilotu unean jasandako torturak salatu, eta torturak jarraitzen zutela esan zuen, Xabier Kalparsoro eta Gurutze Yantzi gogoratuz.



**BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru**

*"Iguindu"*

Nazkatu.  
— Iguinduta nago tabernaik taberna ibiltzen.



JON IRAEGI

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

Liburu berrien zerrenda

**NARRATIBA**

- 'Ezezaguna helbide honetan' / Kressmann Taylor
- 'Bederatzietatik bederatzietara' / Leo Perutz
- 'Eguzkipekoak' / Pablo Sastre
- 'Napumoceno da Silva Aratjo jaunaren testamentua' / Germano Almeida

**POESIA**

- 'Inoiz izan ez garenotan' / Karlos Linazasoro
- 'Mailu isila' / Juan Kruz Igerabide
- 'Batak ez du bestea kentzen' / Gerardo Markuleta
- 'Eta Harkadian ni' / Anjel Erro
- 'Armasa galduaren ondarea' / Pello Otxoteko
- 'Eguraldiaz hizketan' / Mikel Perurena Ansa

**KONTSULTA LIBURUAK**

- 'Obabatiko tranbia: zenbait gogota azken aldiko euskal literaturaz (1989-2001)' / Iban Zaldúa
- 'Helloak Txinan' / Jon Abril
- 'Iraultzen Maratoia' / Joxe Iriarte "Bikila"
- 'Euskararen etxea' / Pello Salaburu

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

**Adi!**

Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak!

**EKAINAREN 7tik AURRERA**  
**Zorion agurrak**  
**ASTELEHENEKO**  
**GOIENKARIAN!**

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

**Gainera...**


**Zorion agurrak, SMS bidez!**

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria**-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

**MIRVAT**

**Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak**


MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua  
Aingeru Guarda pasealekua 41  
ESKORIATZA  
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05  
www.mirvat.com



## ATREBENTZIAEZPADA/ Uste dozu gero eta lehenau jarten dittuela turroiak dendetan?



**LUCITA RODRIGUEZ**  
etxeoandrie



**ADOLFO FERNANDEZ**  
langilie



**ESPE ARANA**  
etxeoandrie



**URCI VELASCO**  
erretiratue



**BEGOÑA ERRASTI**  
etxeoandrie



**JOSE MAEZTU**  
langilie

Oin dala gutxi jarri dittue, nik uste dot larreiko goiz dala, pentsau nun dauzen Gabonak! Nik ez dot lehenau erosten, hille bukaeran erosiko dot holako zerbaitt. Oin hastie bizkorrei da.

Bai, gero eta lehenau jarten dittue, holan gehixau salduko daue eta. Neuk, hala ta be, ez dauket asmoik erosten hasteko. Gabon inguruen bai, erosi eta jango dittut. Hala eta be, ez naz oso zalie.

Ni lehenauko ohittureta-kue naz, eta ez dot erosiko. Gainera, ez jat komeni hola-ko gauzaik jatie, gustau bai baina ezin. Etxien be eztaue jaten turroi eta antzekoik, konpotie gureu dogu.

Nik uste dot larreiko goiz dala turroi eta antzekuek saltzen hasteko. Hori bai, dendara fanez gero, erosi. Badakitzu, seme-alaben eta loben aitzakitez... Gainera, nik ezin dittut jan.

Larreiko agudo jarten dittue, eta holan gehixau jaten dogu. Badakitzu, erosten fan eta beti piketan da zerbaitt. Gabonetan badauket jateko asmue, eta gero pasietan fan biher!

Bai, gero eta lehenau, baina nire ustez ondo dau. Turroi gogorra asko gustetan jat, eta dendara fanez gero erosi egiten dot. Badauket tenporadia bukatu arte turroia jateko asmue.

### TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK ESPALOIRA IGOTA** Era horretara topatu genituen argazkian ageri diren kamioi eta autoak. Egia esan, zama utzi behar dutela eta, ez dute erraza izaten, baina espaloira igotzea ez da ego-kiena. Kontua da espaloiak ez daudela prestatuta hainbesteko pisua duten ibilgailuak hartzeko, eta denborarekin zulatu egiten dira. Gainera, esan beharrik ez dago, espaloiak oinezkoendako dira. /M.A

### ETABARRUAN...

GIZARTEA /04

EUSKARA /05

KIROLA /06

#### Berrogei sai Urkulun

Joan den zapa-tuan, berrogei sai jaitsi ziren Urkulura. Ikusmi-ra sortu zuten saiek.

#### 'Berbeta berua' hasi dute

Astean hasi da Loramendi *berbeta berua* programa ikaste-txeetan ezagutze-ramaten.

#### Igerilekuak eta trinketa

Igerileku berri bi eta frontoiaren orde trinketa egiteko proposa-mena jarri dute mahai gainean.

### ASTEKODATUA

# 69

#### LAGUNI EGIN DIE GONBITA LORAMENDIK

Gaur, egubakoitza, afaria izango dute San Migeletan taloak egiten ibili ziren lagunek. Eskerrak emateko Loramendik afaria antolatu, eta 69 laguni egin diete gonbita. Gehienak joango dira.


### BESTEKEESANA

“Apotzaga auzoan dagoen kanposantua formagatik egin da ezagun, izan ere biribila da.

1966garren urtean, auzoko orduko apaizak auzotarrentzat hilerri berezia egitea erabaki zuen. Arkitekto bati egin zion kanposantua diseinua egiteko agindua, eta hark biribila egitea proposatu zion. 22 metroko diametroa du hilerriak, eta 20 hilobi sail jarri zituzten bertan: auzoko baserri bakoitzarentzat bat, apaizarendako beste bat, eta azkena, arkitektoarentzat. Auzolanean, harrira ahal zen tokitik aterata eraiki zuten kanposantua. Lanak, baina, Euskal Herriko hilerri politenetako batean lurperatuak izateko aukera eman zien herritarrei. Durangon landutako estela diskoikarak ere badira, horietako batzuek, esaldi bitxiak dituzte.

'GARA'/04-11-01

### HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



#### Emun besito

O in dala aste pare bat hauxe esaten entzun neuen kalien aite bat bere alabiei: emun besito. Ez da lehenengo aldixe holako kutrekerixaren bat edo beste entzuten dotena, eta zer pentsaue emuten dust. Nire asmue ez da hamen inori kulpak botaten hastie, besterik barik komentetie baino ez. Horregatik, gura izenez gero, irakurri beheien datorrena, eta zeuek ikusi.

Sarriten entzuten dou txakurrei eta umiei euskeraz eiten jakuela, baine sekule ez dou esaten zelan. Gainera kuriosuena da bai txakurrei eta baite umiei gehixenetan euskerazko izenak ipinten jakuela, eta askotan inoiz entzun bakuek eta zenbat eta gatxauek, hobeto. Adibidiek asko izen leizke, eta batzuetan txakurrek be pertsonen izenak eukitten dittue.

Oso ondo dau izenak euskeraz ipintie, nunbaitetik hasi bihe dalako, baine gero oso kontuten euki bihe da berba

zelan eiten jakon. Nahiz eta eskolan eredu egokixe jaso, etxien aldrebes esaten badutze, horrek ez dakar onik.

Nik pentsetan dot guraso batzuek Gozategin abestixe behin baino gehixautan entzun biheko leukiela, *Emoixtaxuz musutxue maillie* ahotik esaten ekin arte. Badakit bere sasoiel belarriko mine be eingo eutziela bati baino gehixauri, baino ondio be diskue bizirik dau eta emun egurre!!!

Honen bitartez ez dot esan gure oin puristak edo aranistak bihurtu bihe garenik, baine forma jatorrak eta ondo esanak baldin badaukou ez dau zetan patxito bihotzito edo antzekuek esaten ibili biherrik.

Hamendik aurrera be umiek jarraitu eizue laztanak, musutxuek, apak edo pottak emuten, beti izengo die oso ondo hartuek eta estimatuek. Ikusten dozuenez euskeriek mosuek emuteko aukera bat baino gehixau eskeinketan dusku.

**“Nik pentsetan dot guraso batzuek Gozategin abestixe behin baino gehixautan entzun biheko leukiela, Emoixtaxuz...”**

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Maria Agirre

ERREDAKZIOA  
Maria Agirre

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate  
Imanol Soriano

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



M. J. Aretxaga

## Despistaute nabil

Azkenaldixen despistaute nabil. Batetik, ordu aldaketara ezin egokitu, bestetik, gaztaiñak baino lehenau turroiak eta antzekuek jarri ditzute dendatan. Kalendarixuei behin baino gehixautan beitu dotzet astien, eta erloju danak aldaketan be nahikue lan euki dot.

Urkulun be izen da nobedadeik. Sai mordue ikusi zittuen nire lagun batek fan dan zapatuen. Bilurtute etorri zan bertatik. Askotan faten da lagune Urkulura, (batek daki zetara), eta azkenaldixen emozionaute dau bertan ikusi dittuen ahata batzuk diela eta. Ez dakitt ze itxura izengo dauien, baina baleike kutzara formei eukittie, behintzat lagunek *pato cuchara* esaten dotzie.

Despistaute eta ezer entendituten ez dotela; holaxe sentiduten naz. Lehenau Domu Santu egune izaten zan, eta oin Halloween berbie gero eta gehixau entzuten da basterretan. Urte batzuk barru kanposanture fango gare Halloween eguna dalako. Agur Domu Santu egunei, ikusiko dozue! Portzierto, atxalbatar batek, **Mikel Lopezek**, irebazi euen Halloween gabeko disfraz premixue Bergaran, **Jam** diskotekan. Gurutze batekin fan ei zan mutile, kanposantu edo hildaku disfrazate. Lana hartu bai, baina 600 euro aberatsaue bueltau zan.

**GIZARTEA/** Ostrukez gain, txakurrak, okak eta 'poney' bat ditu, besteak beste

# Pozik moldatzen da Jabier Oñederra herrira ekarri dituen hiru ostrukekin

MARIA AGIRRE

Ez dakigu Jabierren asmoa herrian zoologikoa antolatzea ote den, baina gero eta animalia gehiago ditu. Berriena: ostrukak. Joan den udan ekarri zituen hiru ostruka, eta Arkarazora bidean duen lursailean bizi dira. Ondo moldatzen da ostrukekin.

Iloba txikia animalia-zale izatea nahi du Jabier aitona, eta joan den udan hiru ostruka ekarri zituen. Iloba ez dakigu zelan moldatzen ote den ostrukekin, baina aitona, behintzat, oso lagun dutela esan daiteke. "Hasieran ez pentsa, kontuz ibili behar nuen ostrukekin, baina apurka-apurka ikasten joan dira, eta orain lasai asko joaten naiz euren aurrera. Ez didate ezer egiten, ez niri ez beste inori", dio Jabierrek.

### BI EME ETA AR BAT

Hiru ostruka ditu: bi eme eta ar bat, 80 kilo inguru pisatzen du bakoitzak eta bi urte pasatxo dute. Arrari *Pottotto* deitzen dio, eta emeei *Ju* eta *Liz*. Garia, garagara eta barazkiak ematen dizkie jateko. Lau egunean behin, gutxi gorabehera, arrautza bat egiten du ostruka bakoitzak, eta sekulako arrautzak dira. "Dozena bat arrautzaren pareko arrautza egiten dute, eta bizkotxoak egiteko behintzat onak dira. Tortillan jateko ere bai, baina zapore gogorragoa dute". Herrian nahikoa ikusmira sortu da ostrukak direla eta. Arkarazora bidean daudenez, sarri izaten dira errepideari begira, eta oinez joaten direnek erraz ikus ditzakete.

### ANIMALIA GEHIAGO

Animalia-zale sutsua da Jabier, eta *poney* bat, behiak eta okak ere baditu. Zelan ez, txakur ugari ere bai, bere zaletasunik handiena ehizan egitea baita. Txakurrak hazten ere abila da.

Animalia gehiago ekarriko ote dituen galdetutakoan, berriz, oreinak eta basurde txikiren bat ekarri gurako lituzkeela adierazi digu.




Javier Oñederra ez die beldurrik ostrukei, eta bere eskutik jaten dute.

## Berrogei sai jaitsi ziren Urkulura

Ez dakite zer dela eta jaitsi ziren berrogei bat sai Urkulura, joan den zapatuan. Fermin Lezeta basozainak esan digunez, arratsaldeko lehen orduan jaitsi ziren saiak; dozena bat ardi zeuden zelai batera. Saiak ez zieten zelaian ziren ardi eta bildotsei eraso egin, eta gainera, urtegiaren zebilen jendea inguratu zitzaizenez, berehala ihes egin zuten. Basozainaren esanetan, ez zenez ezer gertatu, ezin esan daiteke zergatik agertu ziren hainbeste sai. "Hipotesiak asko izan daitezke, baina ezin bat aukeratu, denbora laburrez egon baitziren eta besterik gabe alde egin baitzuten". Orkatzategi eta Hiru Haitz inguruan ibiltzen dira saiak, eta Lezetaren arabera, Urkulura azaldu izana ez da hainbesteko nobedadea. "Ezohikoagoa litzateke saiak herrira jaitea, baina Urkulun azaldu izanak ez gaitu hainbeste harritu behar".

Hala ere, joan den zapatuan Urkulu urtegiara joan zen makina bat lagun geratu zen zur eta lur saiak ikusterakoan. Inguruan bizi den lagun batek adierazi digunez, ez du inoiz hainbeste sai ikusi Urkulun. Baina urtegi inguruan ez ezik, Apotza-Etxebarrin ere ikusi dituzte saiak azkenaldian. Basozainak uste duenez, talde horretakoa zen Aretxabaletan ibili zen saia, joan den irail bukaeran. Saia gaztea zenez, galdu egingo zela uste dute. Herriko hainbat teilatutan eta erreka bazterrean ibili ondoren, basozainek harrapatzea lortu zuten. Behin sendatuta, Aloña inguruan aske utzi zuten saia. Bestalde, ehiza denboraldian gaudela eta, basozainak ehiza postuak bisitatzen ari dira, ehiztariek baimenak dituzten aztertu eta baimendutako txoriak hartzen ote dituzten ikusten, besteak beste.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

## Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Markoztatze  
profesionala  
prezio ezin hobean!

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta  
943 79 81 78 / 670 997 274

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28

**EUSKARA/** Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoaren oinarritzko txostena egin du Udalak

# Hizkuntza politika finkatzeko oinarritzko txostena egin du Udalak

M.A

Datozen lau urteetan herrian zein hizkuntza politika jarraitu zehaztu nahi du Udalak, eta horretarako behin-behineko txostena kaleratu du. Orain, herriko elkarte eta taldeek ekarpenak egiteko aukera dute. Azaroaren 12an bukatuko da horretarako aukera.

Euskara Biziberritzeko 2005-2008rako plan estrategikoa onartzeko bidean, Aretxabaletako Udalak beste urrats bat egin du. Behin-behineko txostena kalera tu du, ildo nagusiak aipatuz, eta orain, herriko eragile eta taldeek ekarpenak egiteko epea ireki da. Oinarritzko txostena izanik, zirriborroa baino ez da.

## ZERTARAKO DEN PLANA

Aretxabaletan euskararen nora bideak zein izan behar duen jasoko dute plan estrategikoa. Era berean, euskararen alde zein pauso eman behar diren finkatuko da. Horretarako, herriko askotari-ko esparruak hartu, eta horietan guztietan zer egin erabakiko da.

Udaleko Euskara Sailak egingadako txostenean, esaterako, etorkinak hizkuntza aldetik integratzeko programak egitea aurreikusten da. Hori irakas-kuntzari dagokionez, baina administrazioan bake epaitegia eta osasun arloa euskalduntzeko neurriak hartzea pentsatu da. Bestalde, enpresan eragiteko, merkatari eta enpresaburuak ere



Familian, irakaskuntzan, kulturen eta aisialdian euskara bultzatu nahi da.

planeo partaide izan daitezela lortu nahi dute.

Aisialdiak eta kirolak ere badute tarterik. Udalak antolatzen dituen aisialdi ekintzetan, zehatz-mehatz bete nahi dira finkatutako hizkuntza irizpideak, eta begiraleei hizkuntzaren gai-

neko formazioa emango zaie. Kirolari dagokionez, kirol taldeetan euskararen aldeko barne plangintzak egiteko laguntza eskaintzeko asmoa dute.

Esan bezala, hori guztia onartu barik dago, eta taldeek ekarpenak egiteko aukera dute.

## ELKARRIZKETA

**LARRAITZ IÑURRATEGI/LORAMENDIKO TEKNIKARIA**

# “Qué palo! euskaraz ere esan dezakegu”

M.A

**G**aztetxo askok gaztelaniara jotzen dute lagunekin daudenean eta espresio jakin batzuk adierazi behar dituztenean. “Qué palo!”, “Paso de eso” eta halakolak errotuta daude, baina horiek euskaraz ere esan daitezke.

## Loramendi Elkartearen ekimenez ikastetxeetara joango zara; zertara?

12-13 urteko gaztetxoei *berbeta berua* erakustera. Ez da kontu berria, baina esamolde asko gaztelaniaz esateko ohitura dago. Kontua da gazteak esamoldeak gaztelaniaz esatetik hasten direla, gero esaldia dator, eta azkenik, elkarrizketa guztia gaztelaniaz. *Berbeta berua*-rekin adierazi nahi diegu hainbat esamolde euskaraz eta modu erakargarrian esateko aukera bada. Badaude kalean lagunekin edo ligatzerakoan erabil daitezkeen esamoldeak.

## Liburu bat izango duzu oinarri.

Bai, Badiharduguk badu lan hori eginda eta argitaratuta. Bestalde, Loramendik eskatuta, Miriam Txintxurretak proiektua landu zuen, eta ikusi zen eskolara joatea izango zela egokiena. Horregatik, Kurtzebarri eta Almenera joango gara, eta DBHko hainbat gelatan saioak egingo ditugu. Atzo, eguna, Kurtzebarri hasi genuen. Hala ere, joko bidez erakutsi nahi dugu hori guztia. Ni neu joango naiz ikastetxeetara gazteei *berbeta berua*-ren berri ematera.



M.A

## Zergatik adin horretako gazteekin?

Orduan hasten dira koadrilan kalera ateratzen eta era horrelako esamoldeak sarriago erabiltzen. Proiektua lantzen hasteko garai egokia izan daitekeela uste dugu.

## Barreak ere izango dira...

Esprezio batzuk oso arraroak egingo zaizkie, eta jakina, barreak izango dira, ohitura faltagatik bereziki.

## Zuk zeuk erabiltzen duzu *berbeta berua*?

Saiatzen naiz. Esamolde batzuk oso errotuta ditugu, baina ahalegintzen naiz.

## Gainontzean, gaztetxoek euskara gero eta gehiago edo gutxiago erabiltzen dute?

Gutxiago. Gero eta lehenago hasten dira kalean gaztelania erabiltzen. Azken kale neurketan ere hori ikusten da, euskararen erabilerak behera egin du, ez bakarrik gazteengan, orokorrean.

## LABUR

### Herriko gazteendako lan egingo duen gazte teknikaria kontratatuko du Udalak

Gazteei zuzenduko ekintzak antolatzea eta gazteekin harremanetan jartzea izango dira gazte teknikariaren egitekoak. Gazteen aisialdia antolatzea izango da helburu nagusia.

Udalak gazteei zuzendutako saila jarri nahi du abian, nahiz

eta Kultura Sailaren mende egongo den. Hori dela eta, gazte teknikaria kontratatuko du. Gaur, egubakoitza, lehiaketara aurkezteko azken eguna zen. Gipuzkoako Diputazioarekin lankidetzan jarriko da abian ekimen berria.

### Diputazioaren esku Urkuluko lanak

Azkenean, Gipuzkoako Diputazioak esleituko ditu Urkuluko lanak. Hasiara batean Udalak esleituko zituela uste bazen ere, orain Aldundiak hartu du ardur hori. Lanen finantziazioan ere aldaketak izan daitezke, Diputazioak %100 finantza ditzake.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**KiXkur**  
ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala

Ile-luzatzeak

Estetika zerbitzuak

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA



*Okindegia - Gosoletgia*

*Aretxabaleta*

Loramendi 6 • 943 77 17 19

Basabe 2 • 943 77 00 81

Aretxabaleta

**Bertako okina**

HERRIKO KIROL INSTALAZIOAK HIZPIDE

# Igerileku berriak eta frontoiaren ordeztinketa egiteko asmoa dago

Inguruan trinketerik ez dagoenez, horren aldeko apustua egin nahi dute

MARIA AGIRRE

**Aretxabaletan igerileku berriak egiteko proposamena mahai gainean jarri zen joan den astean egindako bileran. Igerileku berri bi egingo lirateke, neguan eta udan erabiltzeko biak hala biak.**

Udala aztertzen ari da zeintzuk izango diren Aretxabaletak etorkizunean izango dituen kirol instalazioak. Horretarako, Udala herritarrekin harremanetan jarri, eta bilera bidez gai hori lantzen ari da. Aurreko astean aztertu zuten zein etorkizun izan dezaket hainbat kirol instalaziok herrian. Hamaika aukera jarri zituzten mahai gainean.

## IGERILEKU BERRI BI

Udan eta neguan erabili ahal izango diren igerileku berri bi egiteko asmoa dago. Beraz, igerileku biek teilatu eta aldamen irrastigarriak izango dituzte, eta sasoiaren arabera itxi edo zabaldu egingo dira. 25x16 m-koa bata eta 16x8 m-koa izango da bigarrena. Herrian horren eskaria egon badago, eta, argi geratu denez, erabiltzaile asko izango ditu, eta diru sarrerak sortzeko gaitasun handiak ditu. Abadiño, Santurtzi eta Portugaleteko igerilekuen argazkiak erakutsi zituzten bileran, hirurek zabaldu eta itxi daitezkeen teilatuak baitituzte.

Gimnasioarekin eta muskulazio gelarekin ere antzera. Erabiltzaile ugari izango dituztela uste dute, gimnasioan, esaterako, jarduera ugari egin daitezke eta. Sauna ere bide horretatik doa. Haurrek ez ezik, gainontzekoek erabiliko lukete, eta gizartean harrera ona du. Eskalada egiteko rokodromoa egitea ere pentsatu da. Hala ere, horrek ez duela jende askorik erakarriko uste dute, gehienbat gazteak. Bestelakoa da erabilera askotariko kantzaren eragina. 1.056 m<sup>2</sup> izango ditu eskubaloian, saskibaloian eta beste hainbat kirolekin jarduteko kantzak. Padel eta squashean jokatzeko kantzak ere izango direla uste da.



Igerileku bat umeendako izango denez, txikiagoa egingo dute.

*Mikel Uribebarria  
zinegotziak  
zuhurtziaz jokatu  
nahi du, aldaketak  
egon daitezke eta*

## TRINKETAK AUKERA GEHIAGO

Eta pilotan jokatzeko, zer? Ba, pilotalekuaren ordeztinketa eraikitzeak aukera darabilte esku artean. Nahiz eta biek mantentze-lan kostu handiak eragiten dituzten eta diru sarrerak sortzeko gaitasun antzerakoa duten, trinketaren kasuan ez du hainbesteko azalerarik eskatzen; gainera, bailaran ez dago trinketik. Herrian pilotan jokatzeko Iturrigorri frontoia ere badagoenez, hori erabiltzeko aukera zabalduko litzateke.

*Udan eta neguan  
erabili ahal izango  
diren igerileku berri  
bi egiteko asmoa  
dago*

Hori guztia zehaztu bada ere, Mikel Uribebarria Kirol Saileko batzordeburuak zuhurtziaz jokatu nahi du, aurreikusitakoaren inguruan aldaketak izatea erraza da eta. Bestalde, gaur egungo kirol etxearekin zer egin erabaki beharko da. Egoera kaxkarran dagoela eta, aurrera begira aprobetxamendua ematea zaila izango dela adierazi du Uribebarria. Aurrera begira, arkitetoei proiektuak aurkezteko lehiaketa deituko dute, martxoan baino lehen.

DOMEKAN JOKATUKO DA PARTIDUA IBARRAN 16:30EAN

## Realaren filiala eta lehenengoa den EHU taldearen aurka jokatu du partidua UDAk

Norgehiagoka zaila jokatu du preferenteko UDAk asteburuan, sailkapenean lehenengoa den EHU taldearen bisita jasoko baitute. EHU taldea Realaren filiala da, eta jokalaria eta entrenatzaile onak ditu. Neka Galan UDAko entrenatzaileak esan bezala, jokalaria kalitate handikoak dira, baina UDAko jokalaria irabazteko gogoz aterako dira. Joan den asteburuan, bestalde, Touring taldearen aurka galdu egin zuen UDAk 1-0. Galanen berbetan, aurrerak izan ziren baina ezin izan zuten golik sartu. Erico, Lur eta Gaizka atezainak ezin izango dute domekako partidua jokatu, Errenterian txartelak jaso zituzten eta.

HIRU TONTOR IGO ZITUZTEN JOAN DEN ASTEBURUAN

## Zazpi aretxabaletarrek esku hartu zuten Hiru Haundixek Hiru Egunean ibilaldian

Herriko zazpi lagunek esku hartu dute AED elkarteak euskararen alde antolatutako *3 Haundixek 3 Egunean* ibilaldian. Jon Urteaga, Iñigo Arkauz, Jon Arrese, Aitor Zubizarreta, Iker Padilla, Asier Atxa eta Asier Bengoa izan ziren joan den zapatuan hasi eta astelehenean bukatu zen ibilaldian.

Aizkorri, Anboto eta Gorbeia mendiak igo behar izan zituzten, eta antolatzaileek bazkari, afari eta gainontzekoak eman zituzten. Lehenengo etapa Zalduondotik Leintz Gatzagaraino izan zen, Aizkorri mendia tarteko zutela. Bigarren etapa Gatzagan hasi zuten, eta Anboto igo zuten. Azken egunean, berriz, Gorbeiak tontorrera iritsi ziren.

MURRUKIXOREN MENDI ASTEA AZAROAREN 22AN HASIKO DA

## Alberto Etxebarriaren omenez mendi irteera izango da Murruxikoren Mendi Astea

Duela gutxi hil zen Alberto Etxebarriaren omenez, Kurtzebarri mendira irteera antolatu du Murruxikok. Azaroaren 27an izango da irteera, eta era horretan, elkarteak antolatutako Mendi Asteari bukaera emango diote. Murruxikoko sortzaileetarikoa izan zen Alberto, baina mendi elkarteak ez ezik, beste talde batzuek ere esku hartuko dute omenaldian: herriko argazki taldeak, Arrasate Musikalek eta Felix Iñurategi Baltistan fundazioak. Goizean errautsak zabaldu eta zuhaitz bat landatuko dute, eta ondoren bazkaria egingo da Taberna Berri jatetxean.

Murruxikoren Mendi Astea azaroaren 22an hasiko da, eta aste osoan diapositiba emanaldiak izango dira.

## JOKATZEKOAK

### ESKU PILOTA

**Azaroak 6 kirol etxean**  
09:30ean Oruesagasti Larrañaga-Agirre Larrañaga  
10:00etan Iriondo Iturbe-Isasti Isasti  
10:30ean Gonzalez de Durana Galdos-Jelgezabal Leiba  
11:00etan Korta Iturbe-Ormaetxea Etxebarria  
11:30ean Juantxu Uriarte-Mujika Carrillo  
12:00etan Gracia Otxoa-Heriz Agerre

## EMAITZAK

### FUTBOLA

**Touring 1 UDA 0**  
Preferentea.  
**UDA-ARIZ 3 Dunboa 2**  
Ohorezko Jubenilak  
**Allerru. 0 UDA-ARIZ 1**  
Lehenengo mailako jubenilak  
**UDA-ARIZ 3 Añorga 3**  
Lehenengo mailako kadeteak.  
**UDA-ARIZ 3 Bergara 1**  
Bigarren mailako kadeteak.  
**Ordizia 0 UDA-ARIZ 1**  
Ohorezko infantilak

**UDA-ARIZ 3 Bergara 1**  
Infantil txiki.  
**Mondragon 2 UDA-ARIZ 1**  
Emakumezkoak F-11  
**Eibartarrak 9 UDA-ARIZ 1**  
Emakumezkoak F-8

# Lasai

## Mirian Manteca masajista

Lezama Zentru Komertziala  
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
- Kraneala
- Estrukturala
- Funtzionala
- Lotura muskularrak

## Esko Sport

Intxaurtxueta 5  
Eskoriatza  
Tel.: 943 71 52 96



LARUNBAT ARRATSALDEZ IREKITA

# J.J. IRURE

ITURBENTZAN

URA  
GASA  
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15  
ARETXABALETA

943 793 187

ERRETRATUZAHARRA

## Dorletako Ama, Leintz Gatzagatik Arrasatera

**B**ailarako elizbarrutiak eukaristi kongresua egin zuen Arrasaten, 1945eko ekainaren 24an. Kongresuari oihartzuna eman nahi ziotela eta, bilerak iraun zuen bitartean Dorletako Ama Birjina Arrasatera eramatea erabaki zuten. Irudiaren lekualdatzean lagundu zuten hainbat lagunek, tartean aretxabaletarrek.

Argazia Aretxabaleta eta Arrasate arteko mugan aterata dago, Arbizelai inguruan. Eskumara legoke gaur egun Chapime tailerra eta ezkerrean, Mugarri. Argi dagoenez, inguru hori nahiko aldatu da ordutik hona.

Dorletako Ama Birjina gaztelu itxura duen arkudun kaxa batean daramate. Izan ere, gaur egun txirrindularien zaindari denari, garai hartan *La virgen del castillo* deitzen zioten. Eta gaur egun moduan, orduan ere fededun ugari erakartzen zituen Dorletako Ama Birjinak. Urte bi betetzen zituztenean, esaterako, umeak Dorletako Amaren aurrera eramaten zituzten gurasoek, gauetan txiza egin ez zezatela eskatuz. Honako honetan, Luistarrek, guardia



zibilez inguratuta, izan zuten Ama Birjina gainean eramateko ohorea. Elizako gazteek osatzen zuten talde hori, eta ezkondu aurretik ia mutil guztiak izaten ziren bertako partaide.

Argazkian, lehen lerroan, jaunartzeko neskatilak ageri dira: Fermina Gabilondo, Sokorro Bengoa, Cecilia

Olabe eta Regina Elexalde. Estandartea daramana, berriz, Maria Cristina Zuazabeitia da. Irudiaren atzean hainbat apaiz ageri dira: Simon Antsola Arientzako parrokoa, Leandro Arrazola Galartzakoa, Luis Agirre Arkarazokoa eta Jose Lizarralde Zarimuzkoa. Jende artean, berriz,

honako hauek ageri dira: Timoteo Ezpeleta, Eustakio Alkorta, Donato aguazila eta Toribio Elkoro. Atzeatzean, beste hainbat herritar datoz.

**Argazia eta informazioa:** Juan Mari Iturbe eta Joxe Olabe

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

## Lantegia bota eta etxeak egin dituzte

**A**zken urteotan zaharkituta geratu diren lantegiak bota, eta haien ordez etxebizitzak egin dituzte herriko hainbat tokitan. Honako honetan ere hala gertatu zen. Gerra ostean, Roque Agirrek eta beste aretxabaletar batzuek irekitako galdategia itxi egin zuten 70eko hamarkadako gainbeherarekin. Bere garaian, plantxak eta beste hainbat lan egin ziren bertan.




≈ 1987

Errekabarren kalean etxebizitzak egin aurretik, lantegi hau zegoen orube horretan. Ordurako itxita zegoen lantegia.



1990

Lantegia bota, etxebizitzak egin, eta Errekabarren kalea jarri zioten gune horri. Atzealdeko etxeetako kaleak ere izen hori du.



**EGUZKIGRAF**

inprimategia

1979-2004

25. urteurrena

# Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko azaroaren 5a / 186. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Zuriñe Velez de Mendizabal • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Azken ohiko osoko bilkuran zergak igotzea adostu dute udal ordezkariak

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Urriko ohiko osoko bilkuran hainbat erabaki adostu zituzten. Udal zergen igoera, adibidez. Nahiz eta tasa gehienak %3,2 igo, zabor eta uraren kasuan, esaterako, desberdin igoko dute. Bestalde, Olazar elkarteke taberna kudeatzeko pertsonaren bila dabilta.

Urriaren 28an, eguena, Eskoriatzako udaletxean hileko osoko bilkura egin zuten. Askotariko gaiak onartu zituzten bertan.

Batetik, hainbat udal zergaren igoera onartu zuten egueneko bilkuran. Zabor tasari dagokionez, orain artekoa baino %8,5 gehiago ordaindu beharko dute eskoriatzarrek datorren urtetik aurrera. Igoera handiaren aurrean, zaborra biltzearen kostua kobratzeko helburua dutela adierazi zuten udal ordezkariak.

Baina ez da zergetan igarriko den igoera bakarra. Izan ere, uraren tasak %11,5eko igoera izango du. Arrazoi nagusia da Ur Partzuergoak egiten zuen lana orain Udalaren esku geratuko dela. Hau da, uren analisi eta zaintzaren zerbitzua eman beharko du. Gainerako tasen igoera %3,2 izango dela adostu zuten, azkenik.



Zazpi urtetan zehar taberna gidatu ostean, arduradunetz aldatzeko garaia iritsi zaio Olazarreko tabernari.

### OLAZAR ELKARTEKO TABERNA

Bestalde, Eskoriatzako Olazar erretiratu etxeko taberna kudeatzeko norbait behar dela eman du aditzera Udalak. Datozen lau urteetarako lana izango da. Orain arte bi interesatu daude

eta besterik egongo balitz, lehenbailehen udaletxean eman beharko dute izena. Aurkezten direnen artean lehiaketara aterako da lanpostua.

Orain arteko Olazarko tabernaren titularrari beste lau urte-

rako utzi zioten orain gutxi zeregin horren ardura. Hala ere, elbarritasuna lortu du, eta lanik egin ezin duenez, berriz ere zozketara aterako dute lanpostua. Datozen lau urteetan, gutxienez, behar hori bete beharko du aukeratuak.

*Zaborraren tasa %8,5 igoko dute; uraren tasa, berriz, %11,5 gehiago ordaindu beharko dute*

*Ur Partzuergoak orain arte zituen hainbat ardura Udalak hartuko ditu aurrerantzean*

*Olazar erretiratuen elkarteke taberna kudeatzeko norbait behar da lehenbailehen*

## Aurora borealari buruz gehiago ikasteko aukera kultura etxean

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Azaroaren 14ra arte, aurora borealaren gaineko erakusketa egongo da irekita Eskoriatzako kultura etxean. Bertako argazkiek fenomenoaren berri emango diote erakusketara hurbiltzen den orori. Argazki, bideo eta beste hainbat kontu jarri dituzte erakusgai.


Aurora boreala ikertzera joan ziren 2001. urtean Aranzadi elkarteke bost lagun Kanada aldera. Euren lana egiteko, argazkiak eta

filmaketak egin zituzten hilabetez. Atzo ezker, ikerketaren berri gehiago izango dute eskoriatzarrek, datorren hilaren 14ra arte, kultura etxean.

Egunero irekiko dute *Aurora 2001* erakusketa; 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, hain zuzen ere. Bertan, bisitariak aurora borealei buruzko argazki handiak izango dituzte, eta, gainera, Kanadan grabatutako bideo zinta bat ikusteko aukera izango dute. Uneoro egongo da ikusgai fenomenoak jasotzen duten irudiak.

### HITZALDIA EGUENEAN

Atzo arratsaldean ireki zuten erakusketa, eta inaugurazio hitzaldia eman zuen Aurora 2001 espedizioa Jon Teus kideak. Besteak beste, euren abenturaren nondik norakoak izan ziren, aurora boreala zer den eta zergatik hasi ziren ikertzen azaldu zuten atzoko mintzaldian. Hango paisaiari buruz ere aritu zen. "Hemen paisaia ederrak ditugu, baina oso batera dago dena. Kanadan, aldiz, laku ederrak daude; ehunka kilometrotan zehar milaka laku aurki daitezke".



Jon Teus argazkilaria den arren, bideoak grabatzen aritu zen Kanadan.



## ELKARRIZKETA

CECILIA SANTIAGO ETA JAVIER MATAS/PRESOEN LAGUNTZAILEAK

*“Autogobernu sistema berriarekin pozik daude zapatisten kontra daudenak ere”*

Z.V.M.

**B**artzelonatik bueltan harrapatu genituen Ceci eta Javier. Bilbotarra da Javier, baina hiru urte daramatza Mexikon Cecirekin bizi izaten. Hango presoek laguntzen dihardute; horri buruzko hitzaldia egin zuten Eskoriatzan.

**Zein da Mexikoko kartzeletako egoera?**

Mexikoko presoendegiak leporaino daude; bizi baldintza txarrak dituzte. Batzuek, lurrean tokirik ez dutenez, ziegako barretara lotuta egiten dute lo! Zutik! Pertsona baten identitatea desegituratzeko bakarrik balio dute mundu osoko kartzelek.

**Zer-nolako presoak daude Mexikon?**

Ameriketako Estatu Batuak aldamenean daude eta Koloniatik bertara eramaten duten droga Mexikotik igarotzen da. Horren ondorioz, kartzeletako preso asko droga-trafikoarengatik daude bertan. Hala ere, milaka eta milaka preso indigena daude. Preso politiko gutxi daudela esan ohi dute; presoek %70 dira, gure iritziz. Izan ere, komunitatearen alde lan egiten duen oro giltzaperatzen dute; kooperatibak sortzen dituztenak...

**Eta zergatik giltzaperatzen dituzte indigenak?**

Gobernuarentzat oztopo direlako. Gehienetan, bidegabekeriak sartzen dituzte itzalpean. Gainera, espainiera ezagutzen ez dutenez ezin defenda daitezkeela. Errugabeak izan arren, torturak jasaten dituzte askok, eta errudunak direla aitortzen dute, infernutik ihes egiteko. Kontra duten beste faktore bat: administrazioaren ustelkeria, epaileetatik hasita. Dirua ordainduz gero, atxilotutakoaren kasua ondo eramaten saiatuko dira. Ofizioko abokatua egokitzen zaienean, aldiz, zail da aurrera ateratzea, abokatu bakoitzak ehun kasu baino gehiagotan egiten baitu lan.



Z.V.M.

*“Ziega batzuetan 30 lagun baino gehiago daudenez, askok zutik egin behar dute lo ondorioz”*

*“Komunitatearen alde lanean dihardutenak kartzelaratzten dituzte”*

**Zer aurkitzen dute barruan?**

Kartzeletan barne sare bat aurkitzen dute; normalean droga trafikatzailerak buru dira. Indigenek, drogan ez erortzeko, beren burua errespetatua izateko eta egotzi dieten kargutik defendatzeko ahalegin berezia egin behar dute. Normalean, kanpoan dagoen familia mantendu behar dute, eta askok mafiarentzat egiten dute lan presoendegian.

**Zer lan egiten duzue zuek presoekin?**

Preso eta familiei laguntza ematen dien elkarte batean dihardugu. Sei liburu egin berri ditugu. Preso ohien testigantzak erabiliz txiapastarrek nola bizi irauten dezaketen azaltzen dugu, esaterako. Bestalde, laguntza non lortu jakiteko, familiei elkarrean berri ematen diegu. Kontuan hartu behar dugu gobernu kanpoko edozein elkartetara gerturatzen direnak giltzapean sar ditzakete, eta oraindik mesfidantza handia dago. Horren ondorioz, lan handia egin behar da oraindik.

**Hitzaldiaren beste gaia: Caracoles deritzon gobernu sistema.**

Matxinaturiko komunitate autonomoen autogobernu sistema berria da. Ez dute gobernu instituzionalaren laguntzarik jasotzen; ez ematen ez dietelako, gura ez dutelako baizik. Lurrean horietan bizi direnentzat gobernatzen dute, ez zapatistentzat bakarrik. Gainera, zapatisten kontrakoak diren asko gustura sentitzen dira sistema berriarekin.

**Ze funtzio betetzen dute?**

Askotariko proiektuetan kolaboratzen dute. Eurek erabakitzen dute ze egitasmo garatu gura duten; noiz, non eta nola egin... Ahal dutena egin, eta behin bukatuta ematen dute horren berri; ez alde-rantziz. Orain, euren arduraren nagusia da osasun arloa garatzea; herri medikuntza bultzatu gura dute. Izan ere, Txiapas oso aberatsa da baliabide naturaletan. Bizitza alternatiba berria eraikitzen dihardute, euren aldetik garatuz.

## TELEFONJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

## BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

## OHARRAK

## SOLASALDIA

Gaur, egubakoitza, Amuskak antolatuta, *Cuando un hombre ama a una mujer* filma eskainiko dute 18:30ean, kultura etxean. Ondoren, Ana Larrieta psikologoarekin solasaldia.

## KONTZERTUAK

Eskoriatzako Askatasunak antolatuta, gaur, egubakoitza, 19:00etan, Naira tabernan *Never Surrender* taldearen kontzertua. Azaroaren 13an, berriz, Cipris tabernan izango da kontzertua, *Lucas Prest* taldearen eskutik. Azaroaren 20an, bestalde, *Kleenex* taldearen txanda izango da Aldatz tabernan, eta azaroaren 26an, *Jim TNT* taldearena Inkernun.

## KILOMETROAK AURKEZPENA

Azaroaren 9an, 19:00etan, Kilometroak 2005 jaiaren aurkezpena egingo dute, Jose Arana gunean. Herri-tar guztiak daude gonbidatuta. Kilometroak jai antolatzen ari diren koordinatzaileek emango dituzte azalpenak.

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza



- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3  
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77

Zure

Zerbitzura

## ZORTZI BIKOTE ARITU ZIREN JOKATZEN

## Pilotariak bikain aritu ziren asteburuan eta joko maila beretsua erakutsi zuten

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Giro polita egon zen asteburuan Gatzagan. Urteroko hitzordua izan zuten gatzagarrak; izan ere, bikoteen arteko pilota partiduak jokatu zituzten. Maila bikaina erakutsi zuten guztiek. Denek jaso zuten oparia, ongi igarotzea zen garrantzitsuena—eta.

Zapatu eta domekan pilota partiduak jokatu zituzten Leintz Gatzagan. Guztira zortzi bikotek hartu zuten parte lehian.

Lehenengo egunean kanporaketak jokatu zituzten eta igandean, berriz, lau bikote aritu ziren finala jokatzen. Gazteen artetik Ibai eta Aitorrek osatutako bikoteak jokatu zuten. Hauek 22 eta 6 irabazi zioten Lur eta Oditzek osatutako taldeari. Nagusien artetik, berriz, finalean Agarre eta Herizek osatutako taldeak 22 eta 16 irabazi zion Ismael eta Iñakik osatutakoari. Iñaki Urubilentzat izan zen, berriz, lehiaketako jokalarari onenaren saria.

Nahiko berdinduta egon ziren partidak. "Oso giro polita egon da, bai jokalarien aldetik, baita ikusleen aldetik ere", adierazi du Beloki antolatzaileak. Bikote guztiek eskuratu zuten oroigarriren bat edo beste; txapelak, afariak, janaria... banatu zituzten.

## HASIERAN LIGA EGITEN ZUTEN

Aspalditik antolatzen dute pilota partiduak Gatzagan. Hala ere, hasieran liga antzerako bat jokatzen zen. "Baina jendea eski garaia iristerakoan, esaterako, kanpora joan eta partidak jokatu gabe geratzen ziren. Horregatik erabaki genuen asteburu batera igarotzea", azaldu du Belokik.



Bai gazte eta bai helduek maila bikaina erakutsi zuten asteburuko norgehiagokan.

AITOR LIZARRALDE

*Maila bikaina erakutsi zuten jokalariek, eta giro polita sortu zuten frontoian*

*Hamar urte daramatzate gutxi gorabehera Gatzagan ekimena antolatzen*

*Hasieran liga txikia egiten zuten; asteburu batean jokatzen dira orain partiduak*

*Hirurogei ta bost urte baino gehiagokoen arteko partiduak ere egin izan dira Gatzagan*

## Udal-ordenantzak aldatzea adostu zuten

Z.V.M.

Udal-ordenantzetan aldaketak emango dira 2005. urtean. Gatzagako Udalak egindako azken osoko bilkuran, hainbat tasen igoera proposatu eta onartu zituzten. Bestalde, herriko euskalkiaren aldaketak aztertzeke lana Badihardugu elkarteari esleitu zioten.

Hileko azken eguenetan elkar-tzen dira Leintz Gatzagako udal ordezkariak ohiko osoko bilkura egiteko. Hala egin zuten oraingoan ere; urriaren 28an egin zuten. Batetik, Gatzagak herriko


hizkera aztertzea esleitu dio Badihardugu euskara elkarteari. Hala, datozen hilabeteotan hasiko dira ikerketa egiten. Herriko euskarak zer nolako aldaketak jasan dituen ezagutzeko baliagarria izango da ikerketa.

Bestalde, 2005eko udal-ordenantzetan aldaketak egitea adostu zuten Gatzagako udal ordezkariak aho batez. Argia eta uraren tasak igoko dituzte, esaterako. Hasiera batean bi igoera desberdin proposatu ziren; azkenean, biak %3,5eko igotzea erabaki zuten. Beraz, datorren urtetik aurrera, zergetan igarriko dute gatzagarrak igoera.



Besteak beste, uraren zerga igoko du Leintz Gatzagako Udalak datorren urtean.

ARTXIBOA



**Mediterraneoan  
zeharreko  
itsas-bidaia  
zoragarria  
irabazi nahi?**

Egin zaitez *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun, eta Mediterraneoan zeharreko bi lagunendako itsas-bidaiaren zozketan parte hartu ahal izango duzu.

**Ez galdu aukera. Harpidetu zaitez!**

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera,  
09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENEKO  
**Goienkaria**

Laguntzailea:

VIAJES  IBERIA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

# hemen bada giro!



*Matikua jatetxea*

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

**IOSU**

taberna  
harategia

Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak

Mitarte 1  
Tel.. 943 77 03 08



**Txalaparta taberna**



Aranburuzabala 25 ESKORIATZA

**NAIRA**  
Taberna

Aranburuzabala 16  
Eskoriatza. 943 71 46 71

**H A I Z E A**



Kafetegia  
eta  
taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 88 60

**ZARAIA**  
taberna

Goizeko 06:00etik irekita  
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 88 95

**IBARRA**  
JATETXEA

Menua  
eta  
karta

Araba ibilbidea 29  
ARETXABALETA  
943 79 18 03



**HIRUSTA JATETXEA**  
Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. : 943 79 06 57



Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

**Taberna Berri**



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

**ARLUTZ**

Gustuko musika  
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

**Dorleta**  
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8  
ARETXABALETA  
Tel.943 79 94 15

**ORLY**

Herriko plaza  
943 79 09 33  
ARETXABALETA

**LAGUNAK**

DASTALEKU

Tel. 943714063

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA

**Aretz**

Markole 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA

Plater konbinatuak  
Ogitartekoak  
Hanbursesak  
Pizzak  
Oilaskoak eta  
paellak eramateko

